ANGELUKO IKASLEAK.
OSOGUNEKO ERAKASKERA
1994-95

HOGOITA SEIGARREN ERAKASPENA 51

① ELHEKETA Aste huntako elhepidea.

1. Aita Sainduaz jarraikitzen zena Azpilikuetaren ahalkuari?
2. Eskerdun zena Azpilikuetari?
3. Azpilikuetaren hobia nun da?

② 

# MARTIN AZPILIKUETA.2.

geroz Eta zonbait aldiz hunek emanikako argitasunak adituzkioz, aitzinetik asmatu zituen erabakiak aldatzen, Azpilikuetaren oharren araberan yarraitzeko.

Hortakotz deithua zen *Aita Sainduaren Aholkularia*.

Eta Aita Sainduak maite zuen hanbatetaraino, nun sekhula ikhusi etzena ordu artio, Azpilikueta eri gaizki egon zelarik, haren etxe lañorat yuan zen, bere begiez ikhusi nahiz. Gure yakhintsua, bere harriduran belhaunikatzera zohalarik, Aita Sanduak larderiaz[2], bainan eztiki, debekatu zakon ohetik higitzea.

Nehok etzuen holako ohore haundia ukhan, eta Roma guzian hedatu zen ezin sinetsizko berria.

Eta halere gure gizon haundia etzen dremendenik urguluntzitu[3], hanpurutu, harrotu.

Yarraiki zuen bethi bezala bere baitako aphaltasuna! Zer ikhasbide ederra haundinahientzat, hain errexki hantzen direnentzat!

Hortan berean ageri da haren adimenduaren egiazko haunditasuna.

Roman hil zen 1586-an, eta hango Eliza batian du bere hobi ederra eta haren harrizko iduriarekin.

Eta ikhustekoa zen ze begitarte eskualduna zuen...!

Buria adinak ukhurtua[4]. Sudurra luzea eta eroria, begiak urdinak eta biziak, ttipiak, bainan phindardunak[5]. Ahoa mehia, ezpain xokoetan irriño doi batekin; kokotza meharra eta aitzinatua, sudurrari hurbildu nahia.

Matel hezurrak hertsiak, buru-sahetsak zabalak, kopeta nasaia...

Hea badenetz eskualdun itxura egiazkorik!

Nik egin nuen behin haren iduria (hori da nere lanpidea, irakurleak), goxoa baitzitzaitan eta ene neurri xumearen heinean ohoratzeko oroitzapen horrekin gure gizon haundia. Ze kharrarekin lothu nintzan lanari!

Eta Diputazioneak erosirik, han dago yauregiko gela batian nahi duenaren agerian.

* (*La Voz de Navarra*, 1934/4/11)

③ ADITZ IKASKUNTZA

31_ Zohalarik  32_ Debekatu zakon
33_ Goxoa baitzitzaitan  34_ Han dago.

31. JOAN. Indicatif

| | Présent | Imparfait |
|---|---|---|
| Ni | noa (je vais) | nindoan (j'allais) |
| Hi | hoa | hindoan |
| Zu | zoatzi | zinoatzin |
| Hura | doa | zoan |
| Gu | goatzi | ginoatzin |
| Zuek | zoazte | zinoazten |
| Hek | doatzi | zoatzin |

| | | |
|---|---|---|
| Ni noan = (que j'aille) | Subjonctif Présent | Subjonctif Imparfait inusité |
| Hi hoan | | |
| Zu zoazin | | |
| Hura doan | | |
| Gu goazin | | |
| Zuek zoazten | | |
| Hek doatzin = qu'ils aillent | | |

32. UKAN - Conj. à dble cplt. Indicatif Imparfait

Obj. sing.: Hari = à lui  Cplt indir. sing.

Nik nakon = nion = Je le lui avais
Zuk zinakon = zinion = Vous le lui aviez
Harek zakon = zion = Il le lui avait
Guk ginakon = ginion = Nous le lui avions
Zuek zinakoten = zinioten = Vous le lui aviez
Heiek zakoten = zioten = Ils le lui avaient

33. IZAN. Régime indir. Indicatif Imparfait

Hura zen = il était
Hura zitzaitan = il m'était
zitzaizun = il vous était
zitzaion = il lui était
zitzaigun = il nous était
zitzaizuen = il vous était
zitzaien = il leur était